


## OINARRIZKO BALIABIDEAK

Lehenik eta behin, gure enpresa sortzeko diru-laguntzak behar izan ditugu. Horretarako, Espainiako Gobernuari eskaera bat egin diogu. Sozietate Kooperatibentzako diru-laguntzen gutxienezkoa 100.000€-koa da, eta gehiengoa 300.000€-koa. Teknologiarekin lan egiten dugunez, kostua altuagoa izan da nekazaritzako lanak baino. Enplegua sustatzeko eta lehiakortasuna hobetzeko diru-laguntzak ere ematen zaizkie kooperatibei, eta gutxiengo inbertsioa 4.000€-koa da. Diru hori inbertituz, diru-laguntza jakin bat jaso dugu.



Diru-laguntzak nahikoak ez direnez, inbertitzaile bat bilatu dugu. Gure enpresako inbertitzaileak tinta ekoizten duten enpresak izan daitezke, gure enpresa hazten ari denez, tinta sortzen duten enpresei gehiago erosten diegulako. Beste hainbat inbertitzaile edukitzea posible da, eta urte bukaeran, dibidenduak ez banatzea erabaki dugu, lehenengo enpresak dirua behar duelako, eta hura hazterakoan, dibidenduak gure artean banatzea adostu dugulako. Inbertitzaile horrek gure enpresaren zati bat dauka ekarritako kapitalaren ekarpenaren arabera, beraz urte bukaeran enpresa horri ordaindu egin behar zaio.



Emandako aukerekin ez da nahikoa, beraz, banku batean mailegu bat egin dugu. Gure azken aukera da, ezin izan dugulako hasierako diru guztia ordaindu, gure poltsikotik atera behar dugulako. Gainera, mailegua ordaintzen denbora gehiago behar badugu, interesak igotzen joaten dira, eta hori ez da komenigarria gure enpresarentzat. Bankuak kobratzen dituen komisioekin ordaindu behar dugun diru-kantitatea igotzen da, beraz, hobe dugu diru-laguntzak eskatzea edo inbertitzaile bat bilatzea.



Aurreko guztia kalkulatu, guk bazkideok egin behar dugun ekarpena kalkulatu eta horrekin hasi gara gure enpresa martxan jartzen.

